

FITXA: 202 - GIPUZKOA - Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia:
Gipuzkoako Lurralde Historikoan eremu degradatuak lehengoratzeko eta azpiegitura berdea hobetzeko proiektuak eta jarduketak gauzatzearren, gauzazko dirulaguntzak.

Nori zuzendua:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakunde hauek eskuratu ahalko dituzte laguntzak:

- a) Udalak, tokiko entitate txikiak eta udal erakunde autonomoak.
- b) Mankomunitateak.
- c) Sektore publikokoak diren partaidetzako merkataritza sozietateak, izan udal esparrukoak edo eskualdekoak, baldin eta egoitza fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan badute eta haien kapital soziala erabat publikoa bada.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/03/04
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 2026ko otsailaren 17ko erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/03/04/c2601267.pdf>

Eragin eremuak: Ingurumena

Zenbatekoa: 300.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/03/05

Aurkezteko azken eguna: 2026/04/06

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu

Gutxieneko zenbatekoa: 10.000,00 €

Laburpena

Oinarrian helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei, tokiko entitate txikiei, mankomunitateei eta udal eta eskualde merkataritza sozietateei gauzazko dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko erregulazioa ezartzea, guztia ere Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiak degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeen funtzionaltasuna eta multifuntzionaltasun ekologikoa hobetzeko jarduketak eta proiektuak egin ditzan, ekitaldi ekonomikoaren barruan.

Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiak dagokion egikaritze proiektua lizitatuko du, eta bere gain hartuko du obra zuzendaritza, barruan zein kanpoan. Hala, erakunde onuradunekin

lankidetzan gauzatuko ditu hautatutako leheneratze eta berroneratze proiektuak eta jarduerak, betiere kontuan harturik aurrekontu eskuragarritasuna eta oinarriotan ezarritako gainerako alderdi guztiak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta lurraldeko azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektuek eta jarduketek ezingo dute lurzoru artifizializatua areagotu –asfaltatua edo hormigoiez estalita– aurreko egoerarekin alderatuta, eta gutxienez honako baldintza hauetatik bi bete beharko dituzte:

- a) Landarez estalitako lurrazalaren azalera areagotzea, edo lehendik den landaretza hobetzea (alegia, espezieen aniztasuna edo aniztasun estrukturala areagotzea, espezie inbaditzaileak erretiratzea, espezie aloktonoak kendu eta autoktonoak landatzea eta, oro har, segida ekologikoaren bidean aurrera egitea).
- b) Ingurunearen gaitasuna hobetzea azpiegitura berde gisa hartu ahal izateko eta/edo zerbitzu ekosistemikoak emateko, izan kontserbazioa, hornidura, erregulazioa edo ezagutza eta gozamina.
- c) Fauna iragazkortasuna eta konektagarritasuna areagotzeko bide egitea, hainbat arrazoi direla eta erasanda dauden eremuetan (hala nola komunikazio azpiegiturak, hiriguneak, lurzoruaren erabilerak eta abar).
- d) Baldintza morfologikoak, ekologikoak, fisiografikoak eta pasaiarekin lotutakoak hobetzea, integratzea, birnaturalizatzea/berroneratzea.
- e) Klima aldaketaren eraginen aurrean, lurraldearen egokitzapena eta erresilientzia lortzen laguntzea –berotegi efektuko gasak husteko gaitasuna areagotuta–.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede den jarduketak edo proiektuak hasi gabe egon beharko du deialdiaren urteko urtarrilaren 1ean, eta urte horretako bertako ekitaldi ekonomikoaren barruan bukatu beharko du. Edonola ere, esandako jarduera edo proiektu hori izan liteke proiektu luzeago baten etapa bat (lehenago hasitakoa edo geroago amaituko dena).